



dituenean beren zorrak pagatzera. Horrela lortzen du kalkulaztea, neurtzea, ezartzea gaurko jokabideak bezala etorkizunekoak, hots, orainaren eta biharraren arteko zubia antolatzen du. Horrela, sistema kapitalistak lortzen du seguratztea bihar gauzak izango direla gaur diren bezala, gaurko indar harremanak berdinak izango dira etorkizunean. Gaur daukagun sentazio arraro hau, bizi garena ez denborarik, ez aukerarik, ez haustura posiblerik gabeko gizarte batean –zer besterik salatzen dute “suminduek”?– zorpetzean aurkitzen du esplikazio nagusietakoa.

Duela mende batzuetatik da eza-guna denboraren eta zorraren arteko harremana, dirua prestatzearen eta denbora lapurtzearen artekoa. Erdi Aroan lukurreriaren eta interesen arteko bereizketa oso garbia ez izan arren oso ondo ohartzen ziren dirua mailegatzen duenak zordunari denbora “ostu” egiten diola, eta horretan dagoela okerra: denbora saltzen zuen, inorena ez dena, jabe bakartzat Jainkoa duena.

Gizarte industrialetan bai baldin bazen artean denbora “ireki” bat –aurrerapen moduan edo iraultza moduan– gaur egun etorkizuna eta bere aukerak blokatuta ikusten dira, finantzek mugitzen dituzten eta indar harreman kapitalistak betikotzea bilatzen duten dirutza ikaragarriek zanpatuta. Zeren eta zorrak denbora indargabetzen baitu, aukera berriak sortu ditza-keen denbora, hau da, aldaketa politiko, sozial edo estetiko ooren lehen gaia. ■



Mekanismo bera da pertsona bakarrarentzako eta populazioarentzako. Hil baino gutxi lehenago, 2001eko apirilean, Irlandako finantza ministro izandako Brian Lenihanek deklaratu zuen: “2008ko maiatzean kargua hartu nuenetik ohartu nintzen gure zailtasunak –bai gure bankuen eta bai gure finantza publiko-koenak– hain handiak zirela, ezez eta burujabetza galdua baikenuen”. Europar Batasunari eta Nazioarteko Diru Funtsari laguntza eskatzean “Irlandak uko egin zion bere etorkizuna bere eskuz erabakitzeke ahalmenari”.

Hartzekodunak zordunaren gain daukan ahalmenak eramaten gaitu Michel Foucaultek botereaz emandako azken definiziora: botereak

“izaki libre” mantentzeko ahalmena ematen du. Zorraren ahalmenak libre uzten zaitu, baina bultzatzen zaitu –berehala!– bide bakarretik abiatzera: zure zorrak pagatzera (baita horretarako Europak eta NDFak beren politika ekonomikoak inposatuz zorduna atzerakadara kondenatuko badute ere).


Baina hartzekodun eta zordunen arteko harremanak ez ditu kaltetzen gaurko biztanleak bakarrik. Zorrak ordaintzeko ez zaienez fiskalitatea handitzen irabazi handienak dituztenei eta enpresei –hau da, klaseen arteko logikari kontra eginez– zorraren kudeaketak etorkizuneko belaunaldiak harrapatzen ditu.

Kapitalismoak eskua sartzen du etorkizunean, gobernuak behartzen



ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Zerbitzua
Kalitatea
Garantia

